


BALIO PROPOSAMENA

Garaiak aldatu egin dira eta teknologia aurrerapenak direla-eta jendeak soilik web orrietara jotzen du janaria eskatzeko, baina gehienetan jartzen dituzten argazkiak ez dira benetakoak, apaintzen dituztelako edo estrategiak egiten dutelako, horregatik erabaki dugu gure enpresa sortzea benetako argazkiak ikusi ahalko ditugulako. Hau da, errealitatea nolakoa den benetan ikusiko genuke modu erraz batean. Gure enpresa aurrera eramateko, balio-proposamena kontuan hartu behar dugu. Gure helburua izango litzateke berezoak gure produktuak aukeratzea eta gure produktuak besteen produktuengandik nolabait desberdintzea. Horretarako, kontuan izan behar dugu produktu guztien elementu kuantitatiboa eta bestalde, kualitatiboa, hala nola, prezioa eta diseinua.

Lehen esan dugun moduan, gure produktuak desberdintzea ezinbestekoa izango litzateke gure helburuak lortzeko. Horretarako, elementu hauek desberdinduko ditugu:

• **Berritasuna:**

Gurearen antzeko enpresa bat dago, baina bereizten dituen da gure enpresa-aplikazioak beste bitarteko batzuk dituela janaria baliozteko eta nutrizioa sakonago bultzatzeko osasun arloan.



• Erabilerraztasuna:

Gure enpresa-aplikazioa eskaintzen digu nolabaiteko erraztasunak gure egunerokotasunean. Aplikazioak hainbat metodo ditu gure helburua gauzatzeko. Horregatik, erraztasun asko ematen dizkigu janariaren ezaugarriak jakiteko, adibidez, zer osagai dituzten, zer prezio izan dezaketen, jendeak horri buruz dituen iritziak.

• Marka:

Besteen enpresetatik bereizteko gure marka erabiliko dugu eta horretarako gure logotipoa sortuko dugu, gure markaren izena erabiltzen 101 dena. Gure aplikazioa janariarekin serikusia daukanez aplikazioaren marrazkia horrekin harremana izango du.



Laburbilduz, gure aplikazioak jende askori lagunduko dio negozioen errealitatea nolakoa den ikusten, iruzur egin ez dezaten eta kontsumitzen duten janaria modu batera edo bestera goza dezaten. Horretarako, ideia askotan pentsatu dugu gizarteari errentagarritasunik handiena ateratzeko. Izan ere, era guztietako metodoak pentsatu ditugu funtzio bakoitza behar bezala joan dadin eta aplikazio hau instalatzen duen jendea, hau erosoan izan dadin eta erraztasun handiz erabil dezan bere egunerokoan. Hala nola, jendearen aipamenak aplikazio honen aukera garrantzitsuenak dira, nola diren ikusarazten baitizu.